

Nafarroako torturatuen sarea



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Interneten begiratu azkar bat eginda, aurkitu dudana lehen gauza izan da 1981eko *El País*-eko artikulua bat, zera esaten duena, izenburuan: "Nafarroako preso eta atxilotuen familiarrek Poliziaren abusuak salatu dituzte". "Azken boladan" atxilotutako hamazazpi lagunena familiarrek salatu dute Nafarroako komisariatetan eta Guardia Zibilaren kaseretan torturatzen dela eta tratatu txarrak ematen direla. "Lekukotasun eta froga asko dago" –diote familiar horiek–; baina zoritxarrez ez dute ezertarako balio tortura desagerrarazteko borondatea ez dagoen bitartean.

Artikuluak, 41 urte edukitzeagatik, ez du gaurkotasun askorik galdu; bai auzi zuzenki politikoetan torturaren erabilera sistematikoari buruzkoan, ausaz –eta hala ere mintzatu beharko litzateke etorkinek, demagun, gaur egun atxiloteta-zentroetan jasaten duten tratuei buruz–; ez ordea tortura desagerrarazteko borondateari dagokionean: tortura sistematikoa izan da urte luzez itun politiko-mediatiko-judizial-mediko bat izan delako torturazaileriei erabateko laguntza eta kobertura emateko, eta beren burua ez bakarrik

Tortura sistematikoa
izan da urte luzez itun
politiko-mediatiko-
judizial-mediko bat izan
delako torturazaileriei
erabateko laguntza eta
kobertura emateko

demokratizatzen, baizik eta progresistatzen eta are ezkertiarizatzen jotzen dutenetako batzuk ez zirelako izan itun horren ezjakin, ez aurkako. Sinpleki, beste aldera begiratu zuten, orduan horixe zelako zuzentasun politikoak eta ustezko demokraten taldekoa, zintzoen saldokoa, izateko eskatzen zen baldintza *sine qua non*. Inork ez du autokritika txikienik ere egin.

Askok dago torturaz hitz egiteko: herritarrak ikartzeko eduki zuen efek-

tuaz; erruduntasunak eraikitzeke izan zuen balioaz; eraginkortasun polizialaren irudia emateko izan zuen erabileraz; informazioa lortzeko aitzakian egindako izugarrikeriez; epaileek, auzi-medikuek, ofiziozko abokatuek, kazetariak, intelektualek... jokatu duten paperaz; tortura-instituzioaren historiaz, arlo juridikoan izandako tratuak eta edukitako ondorioez; idazleek eta filosofoek –Baudelaire, Beccaria, Sciascia, Sarrionandia– gaiari nola egin dioten aurre; matxismoarekin daukan erlazioaz...

Fenomenoaren konplexutasunari hurbiltzen hasteko, *Viento Sur* aldizkarian Begoña Zabalak elkarriketa luze, sakon eta ederra egin dio Mikel Sotori haren esperientziari buruz. Herritar moduan, eskertzen dizkiot Mikeli eta sareko kideei beren kementa eta esku-zabaltasuna (eta eskertzen diot Mikeli nire ipuin bati buruz egiten duen aipua, nahiz eta argitu behar dudana ez dela ezer autobiografikotik). Nafarroako Torturatuen Sareak martxa bat antolatu du hurrengo ekainaren 25ean, Iruñean. Ordura arte. ●

